



Salletar Boluntarioari gutuna

*“Boluntarioa beti dago irtetear, bihotza zabalik, eskua luzatuta,
hankak aurrera egiteko prest. Irten aurkitzeko eta irten emateko”*

Frantzisko aita santua

Gaur, eskerrak ematen dizkizuegu mundu bidezkoago, senide-artekoago eta solidarioagoa eraikitzeko hartu duzuen konpromisoagatik. Gure hezkuntza-obren eta gure gizarte-ekintzaren funtsezko parte zarete, eta adierazten duzue fedea eta guztiz emana den maitasuna gai direla bizitza eta bizi garen mundua eraldatzeko.

Boluntariotza hurkoaren oinazearen aurrean sortzen den erantzun etiko eta errukior bat da. La Sallen uste dugu boluntariotza topaketa dela eta bestela ez dela deus. Boluntario izatea ekintza solidarioa bera baino askoz gehiago da, munduan izateko eta egoteko modu bat da, salletar balioekin bizitzeko eta identifikatzeko modu bat. Boluntariotzak eraldatu egiten du eta eraldatu egiten gaitu. Pertsonalki hazten laguntzen digu.

Salletar boluntariotzak okupatzen eta kezkatzen gaituen errealitatetik harantzago begiratzen du. Errealitatearekin topo egitera irteten da, behar duenari modu altruistan laguntzeko asmo sendoz.

- Hainbat **eremutan** –ikastetxeak, gizarte-hezkuntzazko obrak, GGKEak, unibertsitateak, Salletar elkarteak eta Salle Gazte taldeak–,
- hainbat **tokitan** –tokian tokikoak, nazionalak eta nazioartekoak–,
- **denbora** espazio ezberdinetan –iraupen labur nahiz luzeoketan–.

Boluntariotza hau inspiratzen duten printzipioak –**fedea, senidetasuna eta zerbitzua**– agerian jartzen dira zure eguneroko zereginean, aurrez aurre begiratzen dituzun pertsona pobretuen, zaugarrien, migratzaileen... aurpegietan. La Salleren karisma bizitzeko aukera paregabea da. Izan ere, salletarrok gure bizitza eta gure dohainak besteen zerbitzuan partekatzen ditugu, batez ere behar handiena dutenen zerbitzuan, gure fedearen eta giza konpromisoaren adierazpen zehatz baitira.

Boluntariotzaren Nazioarteko Egunean, La Sallek zeure burua zaintzearen garrantzian jartzen du arreta, besteen zerbitzurako den gure identitatearen funtsezko parte baitzara. Gizarte-ekintza modu komunitarioan bizi dugu, hezkuntza-azentuz. Funtsezkoa da prozesu pertsonalak eta taldekoak elkarrekin eramatea, geure hazkundea eta zeregina burutzen dugun haien hazkundea erraztu dezaten.

Eskertzen dizuegu laguntzeko eta bidea egiteko bihotza zabalik beti izatea. Ez zarete emateko bakarrik prest zairen pertsonak, zeuen burua ere urrats bakoitzean emateko prest zaudetenak baizik.

Zuen zereginak, fedea eta salletar karisma bizi izanik, Arlep Barrutian zerbitzatzeko, eraikitzeko eta eraldatzeko dugun konpromisoa berresten laguntzen du.

Mila esker!

